Txito ere, Olaberriko Herri Eskolako maskota, oholtza gainean izan zen lehenengo aldiz eta berarekin batera dantzatu eta abestu genituen aurtengo festarako Aitor Furundarenak eta Agustin Agirrek osaturiko abestia. Oholtza gainean izan genituen ere gainontzeko eskola txikiak. Bakoitzak mezu bat ekarri zuen etxetik eta mezu guztiak bildu eta oihukatu ondoren, globoz bidali zituzten zerura; olaberritarrek urtero egiten duten moduan, eskola txikien mezua, lau haizetara zabaldu nahian.

Ekitaldi nagusia amaitzeko, Bidania-Goiaz eskola Txikiak jaso zuen datorren urteko festaren antolaketarako testigua. Datorren urtekoa, GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN 27. Festa izango da. Bidania-Goiazen ospatzen den bigarrena, bertan ospatu baitzen lehenengo festa orain dela 26 urte.

Eguerdian, bazkarirako tartetxo bat hartu eta ondoren nahi adina aukera izan zen herri gunean zehar txiki eta helduentzat; eguraldiak asko lagundu ez baitzuen ere.

Igande 9koan, urte osoko lana erakutsi zuten Olaberritarrek eta dirulaguntza murrizketak nabarmenak izan ziren harren, sormena eta alaitasunak izan ziren nagusi Olaberrian. Jendearen erantzuna, urtero bezala, apartekoa. Txikien handitasuna, begi bistan geratu zen beste behin. Datorren Bidania-Goiazen elkar ikusiko dugu.



# IPARRALDEKO ESKOLA PUBLIKO ELEBIDUNEN 30. URTEURRENA

## Ekainaren 16an Saran (Lapurdi) ospatuko da

Ekainaren 16an Iparraldeko eskola publiko elebidunen 30. urteurrena ospatuko dugu Saran (Lapurdin) "Euskara denena, Euskara denentzat" lemapean. Iparraldeko sare publikoan euskararen irakaskuntza aldarrikatzeaz gain, Ipar eta hego Euskal Herriko guraso, irakasle eta ikasleen arteko erlazioak sustatu nahi ditugu festa honen bidez.

1983ko apirilean ireki zen aurreneko gela elebiduna Iparraldeko sare publikoan, Saran hain zuzen ere. Hauxe izan zen Frantzia osoan ireki aurreneko gela elebiduna.

Ordutik gaur arte, Ikas-Bi federazioaren eta hainbat gurasoren eta irakasleen lanari esker, 101 eskola elebidun daude gaur egun. Hauetan, 4891 ikaslek ikasten dute euskaraz lehen mailan (12 urtera arte) eta milako bat bigarren mailan.

Eguna ospatzeko eta indarrak emateko bai Ikas-Bi eta baita gurasoei ere, festa bat antolatuko dugu Saran ekainaren 16an. Iparraldeko eta Hegoaldeko guraso, irakasle eta ikasleak batu nahi ditugu bertan, elkar ezagutu, esperientziak partekatu, euskarari indarrak emateko asmoz, elkarri.

### IRAKASKUNTZA ELEBIDUNA

Festaz gain, Iparraldeko euskararen egoera aztertzen duen txostena aurkeztu nahi du Ikas-bi federzioak. Web gunean aurkituko dizue dossierra.

Info +:
www.ikasbi.com







### EGITARAUA

- 11,00. PUZGARRIAK (polikiroldegi ondoko plazan), TAILERRAK (plazan)
- 11,30 HASIERA-EKITALDIA (Kalejiran eskolatik plazara eta Udaletxera) SARAKO ESKOLAREKIN, SARAKO ABESBATZAREKIN ETA B BAND TXARANGAREKIN
- 12,00-14,00 IKASTETXEEN ERAKUSTALDIA ETA SARAKO ABESBATZA,PLAZAKO KIOSKOAN
- 13,30 GOLOKA kale antzerkia (kaleetan zehar)
- 15,30 KANPANOLUE berbena (plazan)
- 16,30 B. BAND JAZZ TXARANGA (kaleetan zehar)
- 17,30 PATXI PEREZ TA KONPANIA DANTZATZEKO TALDEA, PLAZAN (plazan)



# SARA

Ekaina 2013
16 Juin

30 ans urte

Irakaskuntza elebiduna eskola publikoan

**GRATUIT • URRIK**

## Enseignement public bilingue en fête

EUSKARA denena denentzat

besta on



PATXI PEREZ Konp.



JEUX • ATELIERS



MAGICIENS/CLOWNS



CHÂTEAUX GONFLABLES

Sarako Kantariak

B Band Txaranga

www.ikasbi.com

IKAS-BI · ehige gurasoen elkartea

SARA Herriko Etxea · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Agglo Sud Pays Basque Hego Lapurdiko Hirigunea · france 3 euskal herri pays basque · eitb · La Semaine du Pays Basque · Herria · berria · france bleu pays basque · Euskal Irratiak · tvpi

Crédit Mutuel LA banque à qui parler


Beti dago
lehen aldi bat
edozertarako...
Siempre hay una
primera vez para todo...
Para su primera aventura en bici.
Y para muchas cosas más, incluso para
hacer la compra sin ir al súper.
Es el momento de estrenarte en EROSKI online.
Y para celebrar tu primera vez
te regalamos
10€
en tu primera compra online.
Válido para pedidos superiores a 80 €
en el Supermercado EROSKI online.
eroski.es
EROSKI online
zurekin

# LEIZARAN INSTITUTUAREN LANBIDE HEZIKETAN

## Bost ikasletik batek praktikak Europan

Europa mailako mugikortasunaren programen barruan, Erasmus Programan alegia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketa ikastetxeen koordinakundea den Ikaslanekin batera, Leitzaran Institutuko Gizarte Integrazioko Goi Mailako hezkuntza zikloko hamaika ikasleek haien lan praktikak Europako bost estatutan, zehatz-mehatz Alemanian, Bulgarian, Frantzian, Italian eta Polonian, egingo dituzte. Programa horiek direla eta, aurten praktiketako ikasleen %19a haien lan-praktikak Euskal Herritik kanpo, Europako herrialde desberdinetan, egingo dituzte.

Institutuaren programa propioa Alemaniako Hamburgoko Alsterdorf Assitenz Ost formakuntza eskolarekin egiten dira. Han aurten zazpi ikasle daude lanpostu desberdinetan haien praktikak burutzen: eskola konstruktibistak, musikoterapia zentruak, arazoak dituzten haurrei harrera egiteko etxeak dira ikasle horiek ezagutuko dituzten lantegi batzuk. Alemaniako praktika horietatik at, Ikaslan Lanbide Heziketako koordinakundearekin batera, beste lau ikasle Europako hiri desberdinetan ari dira lanean.

Lan praktika europar hauen helburu nagusia zera da: Europako beste lurraldetan kolektibo baztertuekin erabiltzen diren metodologiak eta sistema berriak ezagutzea. Gizarte Integrazioko goi mailako teknikarien lana, hain zuzen, horrelako kolektibo eta pertsonen gizarteratzean datza; pertsona horiek ezaugarri oso desberdinak izan ditzakete, besteak beste, mota guztietako haur elbarrituak, etorkinak, jipoitutako emakumeak, hirugarren adineko pertsonak, txiroak... Beraz, oso lan arloa zabala da eta bertan aldaketak egunero ematen ari dira. Aktibitate hauen bitartez, azken buruan hona kanpoan erabiltzen ari diren berrikuntzak eta metodo berrik zabaltzea izango litzateke.

Lan praktikak horiek egiteko garaian ikasleak bi diru-laguntza itrurri dituzte: Brusselatik jasotzen dena, batetik, eta Eusko Jaurlaritzarenak, bestetik. Aurten Espainiako Hezkuntza Ministerioak ematen zuten laguntza airean dago oraindik.

Leizaran Institutuaren helburu nagusietariko bat lan-praktika hauek burutzearekin batera zentro horiekin harreman sendoago bat sortzea izango litzateke, bai informazioa trukatzeko baita ere hango lan metodoak eta sistemak ezagutzeko.

Gizarte Integrazioko Goi Mailako hezkuntza zikloa Andoainen 2000.urtean jarri zen martxan, beraz aurten zazpigarren promozioa aterako da. Ziklo honen eskaintza euskaraz zein gaztelaniaz da; ohiko irakaskuntza arautuarekin batera birziklatu nahi duten sektoreko langileei zuzendutako eskaintza partziala ematen da, hau da, arratsaldetan.



# MURALES SOBRE LA DIVERSIDAD, EN EGAPE

## La ikastola de Urnieta organizó la exposición 'El Mundo en Egape'

A finales de febrero la ikastola Egape de Urnieta organizó en la Casa de Cultura Lekaio una exposición de murales cuyo título era 'El Mundo en Egape'.

Durante este curso 2012-13 uno de los objetivos del centro educativo dentro del Plan Anual de Convivencia es el de beneficiarse de la diversidad para enriquecer la convivencia. Diversidad de todo tipo, diversidad social, cultural, diversidad sexual, diversidad religiosa, lingüística... El Observatorio de la Convivencia, en colaboración con los grupos de trabajo de Convivencia y el de Agenda 21, que este curso tiene como objetivo la Biodiversidad, unieron sus fuerzas para llevar a cabo esta exposición.

La decisión de exponer los murales realizados por todos los estamentos del centro: padres/madres, profesorado, personal de comedor y alumnado, surge de la necesidad que como centro escolar sienten de dar a conocer a todo el municipio el valor que dan a la diversidad. "Esperamos que esta labor de equipo refleje nuestro interés en demostrar que la diversidad nos enriquece y nos ayuda a comprender mejor a los demás, a cooperar y a ser más flexibles", culminan desde Egape ikastola.



# PROYECTO FAMILIA-ESCUELA EN INTXAURRONDO HEGOA

## Cultivan una huerta para ir viendo las características de los alimentos

Es durante la infancia cuando más fácilmente se adquieren buenos hábitos alimenticios, por eso desde "Haurtxoak", la asociación de padres y madres de la escuela pública Intxaurrondo Hegoa, se propuso la realización de un proyecto conjunto entre familias y escuela, con el fin de desarrollar buenos hábitos alimenticios entre nuestros hijos-as, concienciarles de la importancia de una dieta equilibrada y sostenible con su entorno, sin olvidar el placer de comer y cocinar.

Comer es imprescindible para vivir, pero también comemos para obtener placer, por aburrimiento, para calmarnos, para no pensar, para reunirnos con amigos y familia, para celebrar, para seducir. Y vivimos rodeados de estímulos que incitan a comer: programas de TV, publicidades, restaurantes, bares, kioscos y comercios con góndolas rebosantes de alimentos y bebidas, al alcance de nuestra mano. En ese sentido, la industria ha logrado producir alimentos a gran escala, procesados y especialmente diseñados para el consumo, a tal punto que no siempre sabemos qué es lo que en verdad consumimos cada vez que comemos.





El objetivo es concienciar de la importancia de una dieta equilibrada y sostenible con su entorno.

Por otro lado, hoy en día una buena parte de los adolescentes padece trastornos alimentarios como consecuencia de los problemas de autoestima, sobre valoración de la imagen y la importancia de ser aceptado por los demás.

Por eso decidimos realizar un proyecto con la cultivación de una huerta, y así ir viendo las características de diversos alimentos: Proceso que siguen algunos alimentos desde su origen hasta el consumo en los hogares (producción, fabricación, distribución, preparación). A través de la huerta, plantada por el propio alumnado, éste pudo ver la importancia de la agricultura en la alimentación, los tiempos y cuidados que precisan las verduras y hortalizas, y el placer de comer aquello que ellos mismos habían creado.

Importancia del consumo de los productos de temporada, tanto por su aportación nutricional como por el respeto al entorno que puede suponer; además del mejor sabor y precio de los mismos.

Los alumnos/as aprendieron los diferentes tipos de dietas según ciertas enfermedades (diabetes, celiacos, alergias alimentarias...), culturas, religión o ideas personales (dieta vegetariana, macrobiótica...). En este sentido, aprendieron a respetar a aquellos que son diferentes a la mayoría, aportándoles valores de respeto y convivencia.

# ELIZALDE HERRI ESKOLAN INTXIXUETAKO KARROXA ANTOLATU ZUTEN

## Ideia antzerkian aditua den Eugenio Arozena oiartzuarrak piztu zien

Lehen aldiz antolatu du Elizalde Herri Eskolak Ihoteetako karroxa. Ideia antzerkian aditua den Eugenio Arozena oiartzuarrak piztu zien. Eugeniok emandako hitzaldi batean iparraldeko karroxak, libertimenduak, asto lasterrak... azaldu zituen. Guraso Elkarteko hainbat kide aspaldian zebilen orduz kanpoko ekintzak plazaratu nahian. Aukera ezin hobea iruditu zitzaien ihoteetan, Oiartzungo inauterietan, karroxa bat antolatzea.

Bertan eskolan ematen diren orduz kanpoko ekintzekin parte hartu zuten: antzerkia, bertsoak, euskal dantza, trikitixa, musikariak (ikasle eta ikasle ohiak)... eta astoaren ordez ponia izan zuten.

Otsailaren 3an, igandea, atera zuten karroxa, herriko ihote jaian txertatuz. Beraz, protagonistak Intxixuak eta Sorginak izan ziren. Elizaldetik 11:30etan abiatu ziren trikitixa eta eskolako musikarien doinuez, ondoren Belutene parean alboka, bertsoak eta euskal dantzak eskaini zituzten. Euskal Herria plazan berriz antzerkitxo bat eta dantzak; eta bukatzeko Doneztebe plazan guztiek eskaini zuten beren emanalditxoa, baita guraso eta irakasleek ere beren dantza emanaldia.




Ilusio handiz prestatu zuten karroxa, ikasle guztiek ikasi baitzituzten bertsoak eta dantzak, ez orduz kanpoko ekintzetan aritzen direnek bakarrik. Intxixu buruak egiteko tailerrak ere antolatu zituzten eguerditan. Gurasoak ere beren parte hartzea izan zuten, zaku eta sorgin mozorroak egiteko tailerrak antolatu zituzten eta dantzan atera ahal izateko dantza tailerrak.

Helburua, guztiok elkarrekin, ikasle, familiak eta irakasleak, ongi pasatzea eta herriko inauteriaz gozatzea izan da. Eguraldiak ere lagundu zuen eta giro eguzkitsu eta alaian aritu ziren guztiak herriko kaleak girotzen. Bukatzeko salda eta patata tortilla hamaiketakoa egin zuten Kontzejupean.



## Korrikaklip lehiaketaren saria Zarautzera doa

Korrikaklip lehiaketarekin ikus-entzunezkoen sorkuntzari lekua egin nahi izan dio Korrika Kulturalak. Guztira, Korrika 18ren mezua/leloa, Eman euskara elkarri, hedatzeko 22 lan jaso dira eta epaimahaiak saria -Korrika 18ren material sorta ederra- Zarauzko Orokieta Herri Eskolako Baleurdin guraso elkarteko kideei ematea erabaki du. ZORIONAK!

# ANIZTASUNAREN ASTEA, BURUNZPE GURASO ELKARTEAREN ESKUTIK

**Herriko kultur aniztasuna isladatzea izan zen ekimenaren helburua**



Burunzpe Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko guraso elkarteak lehenengo aniztasunaren astea antolatu zuen. Guraso elkarteak azaldu duenez, eskolan eta herrian ematen den kultura aniztasunaren errealitatea eta honek duen garrantzia islatzea zuen helburu aste honek.

Hennarekin tatuajeak, munduko jolasak (sokatira, isatsa astoari jartzea...), eskulanak, makilajea, munduko musikak eta karaokea... egin ziren, kultura anitzak ezagutu ahal izateko.

Larunbatean, goizeko 10:00etan, gurasoen arteko futbol partida izan zen udal kiroldegian. Ostean, 14:00ak aldera, gurasoentzat herri bazkaria antolatu zen Extremeña Elkartean.

### MUNDUKO ERREZETAK

Ikastetxean, beste ekintzen artean, "Munduko Errezetak" bilduma osatu zen.

Guraso elkartekoek azaldu dutenez, ikasle bakoitzak errezeta bat egiteko fitxa bat eraman zuen etxera eta gurasoen laguntzarekin hauen herrialde, erkidego edo lurraldeko errezeta bat idatzi zuen.

Errezeta guztiak jaso ondoren bilduma bat osatu zen eta eskolako liburutegian ezarri zuten.

### PARTE HARTZEA

Zumaburu-Sasoetako Guraso elkarteak eta ikastetxeak antolatu ziren jardueratan jatorri ezberdineko gurasoak parte hartzera animatu zituzten.

# V. LIBURUAREN ASTEA





## Juan Kruz Igerabide, Leire Bilbao, Mikel Valverde eta Enrique Morente parte hartu zuten

Apirilaren 19tik 29ra bitartean, gure ikastetxean, "V. Liburuaren Astea" ospatu dugu. Aurten "*Uraren Arloko Elkarlanaren Nazioarteko Urtea*" denez, URA izan da aste honen gai nagusi. Gauzatu diren ekintzen artean, honakoak azpimarra ditzakegu:

Juan Kruz Igerabide, Leire Bilbao, Mikel Valverde eta Enrique Morente idazle nahiz irudigileen bisitak. Hauekin batera gure ikasleek Haur Literaturaz zuzenean gozatzeko aukera paregabea izan dute.

"Liburuaren Nazioarteko Eguneaan" berriz, apirilak 23, "Irakurketa Maratoia" eraman dugu aurrera. Egun osoan zehar, etenik gabe, gure Mediateka ipuin, Kamishibai, olerki nahiz istorioz bete dute eskola komunitate osoko partaide desberdinek.

"Kultura Arteko Eguna"-k Maroko eta Kataluniara hurbildu gaitu aurten. Eskolako ama den Elenak, jatorri katalana duten ikasle batzuekin batera, katalanez "San Jordiren kondaira" kontatu digu. Egun berean, gure ikasle Mohamed-en ama den Kadhija eta hauen lagun Rachid-i esker, Maroko hobeto ezagutzeko aukera izan dute 3. eta 4. mailako ikasleek. Txilaba soinean eta teontzia eskuetan, teoria ez ezik, marokoar kultura bizitzeko aukera ere ekarri digu Kadhijak . Izan ere, bertako te eta opilak dastatu ditugu Marokoko gazteriak atsegin duen musika entzutearekin batera.

Bukatzeko, BLEI (Bertan Laga Eta Irakurri) eskola komunitate osoak momentu berean egunero 15 minutuz irakurtzea lortzen duen ekintza, "Ura eta Irakurketa" argazki lehiaketa eta eskolako ikasle guztien artean sortutako "Ipuin Erraldoia" azpimarratu nahi ditugu.

# PREMIOS DE LA ENSEÑANZA PÚBLICA

## El pasado marzo se entregaron en Bilbao los certificados 'Kalitatea Hezkuntzan'





San Martin Herri Eskola de Bergara junto a Alkartasuna Lizeoa de Beasain, en secundaria Arreitirre de Elgoibar e Ipintza Institutua, también de Bergara, recibieron, entre otros, el pasado mes de marzo los certificados 'Kalitatea Hezkuntzan' que reconocen la apuesta por la mejora de la enseñanza en todos sus niveles.

El galardón reconoce el trabajo de los centros para la mejora de la calidad mediante un programa de gestión. Llegar a este punto es un proceso largo al que acceden los centros que son sometidos a estrictas auditorias hasta lograr el reconocimiento.

La convocatoria se lanza desde el Departamento de Educación sin una periodicidad determinada, y la participación es voluntaria. No todos los solicitantes superan las exigencias ni las auditorias.

# IKASBIDE IKASTOLAK BERE II "ESKOLA BIDEA" PROGRAMA MARTXAN JARTZEN DU





## Programa honek eskolara oinez joateko ohitura zabaldu nahi du

2. urte jarraian Ikasbide Ikastolak bere "Eskola Bidea "programa martxan jarri du, hilak 29an eta 2 astetan zehar. Programa honek eskolara oinez joateko ohitura zabaldu nahi du, hiru helburu nagusi dituela: Ibilgailurik gabeko garraioa bultzatzea, ikaslegoaren autonomia garatzea eta balore ekologikoak transmititzea.

"Eskola Bidea" programa garatzeko batzorde bat osatu da, non irakasleak, gurasoak eta udaletxeko teknikari bat dagoen.

Familiak, Ikastolara bertaratzeko aukera asko dituzte: banaka, taldeka, ikasleak soilik, helduekin lagunduta, oinez, bizikletaz, patinetez... denak balio du garraio alternatiboak sustatzeko.

Prorama hau ondo atera dadin denen partizipazioa behar da: Irakaslegoa, sendiak, ikasleak, udaletxea, auzoko merkatriak (ohartuak izan direnak, zirkular baten bidez eta eskaparateetan jartzeko gometsen bidez), eta noski.... Gidariak.

Nahiz eta bide asko egon (eta nahi izatekotan, erabili) Eskola Bidea Batzordeak bi ibilbide aurreikusi ditu: lehenengoa Gregorio Ordoñez kalean hasita (Arcco merkatari gunea elkargunea duela) eta bigarrena Loiolako Erribera pasealekuan bidez Mikel Laboa zubiraino joaten den bidea.

Bi ibilbideak seinalizatu dira Eskola Bidearen identifikazio txartelekin: "Errespeta ezazu gorria". Puntu hauetan Irakasle eta guraso boluntarioak kokatzen dira, ikasleak lagundu ahal izateko beharrra sortzen bada.

Ikastolara oinez heltzen diren ikasleei "oinezko onaren karneta"n zigilu bat jartzen zaie, esperientza honen lekuko izan dadin.

Orain arte kanpaina oso ondo burutzen ari da. Famili asko parte hartzen ari da, kontutan hartuta bizilekuaren arabera famili asko autobusa hartzeko beharrean aurkitzen dela.

Aurtengo kanpainaren balorazioa positiboa bada datorren urtean errepikatuko da, nahiz eta azken xedea ohitura osasuntsuagoak sustatzea izan, hau da, ibilgailurik gabeko garraio jasangarria bultzatzea.

**IKASBIDE IKASTOLA.**
**Gratxi Rubio, Ikasketa Burua**

# MERCADILLO SOLIDARIO EN LEGAZPI



## Organizado el 1 de marzo por Domingo Agirre ikastetxea

Los niños y niñas de Domingo Agirre amontonaron los días previos al mercado juguetes, libros, utensilios de hogar, ropa, objetos decorativos... para su primer mercado solidario, que tuvo lugar en la calle peatonal de Laubide. Allí pusieron a la venta todos estos artículos al simbólico precio de 1 y 2 euros. Los fondos recaudados fueron destinados después a una ONG que ellos mismos eligieron.

La idea de montar un mercado solidario nació del grupo de convivencia de Domingo Agirre. Este último está compuesto por padres, madres y profesorado. Su objetivo es, tal cual indica su nombre, crear un marco de convivencia entre todos los que forman la comunidad escolar, con distintas actividades como pueden ser talleres de cocina, manualidades, salidas... y la celebración conjunta de una 'Semana de convivencia' a finales de curso.

El mercadillo estuvo atendido por los 65 alumnos y alumnas que actualmente cursan quinto y sexto.

# ERGUIN AMPLÍA SUS INSTALACIONES



## La consejera de Educación, Cristina Uriarte, inauguró seis aulas, gimnasio y patio cubierto

Dichas instalaciones se encuentran en funcionamiento desde el curso pasado pero el acto oficial inaugural -con aurresku y corte de cinta incluído- tuvo lugar hace un par de meses.

Las obras de ampliación de la escuela de Erguin han tenido un presupuesto de 1,1 millones de euros. La actuación llevada a cabo consistió en acondicionar seis nuevas aulas en los antiguos 'arkupes' del edificio escolar, que antes hacía las veces de patio de juegos durante los días de lluvia. En su lugar, se ha edificado una estructura que hace las veces de patio cubierto junto al edificio del nuevo gimnasio.

Las seis nuevas aulas albergan a los alumnos y alumnas de tercero y cuarto de Primaria. El incremento de matriculaciones que el centro venía registrando durante los últimos cursos había dejado pequeñas las dependencias escolares de Erguin. Alrededor de 440 alumnos y alumnas de Primaria cursan sus estudios en este centro público que tras la ampliación dispone ahora de 21 aulas. Forma parte de la red de Arrasate Herri Eskola, denominación que agrupa a las escuelas de educación preescolar e infantil de Bedoñabe (San Andrés) y de Musakola (San Antolín), al de primaria de Erguin y al Instituto de secundaria y bachillerato. Su alumnado conjunto se cifra en 740 estudiantes.

# IRUNGO TXINGUDI BHIKO 2. COIMBRARA JOAN ZIREN

## Hiri horretako Sao Teotonio institutuarekin duten elkar trukea



2013ko apirilaren 14tik 18ra, Irungo Txingudi BHIko 2. mailako ikasle talde bat (Comenius eta English Workshop, aukerazko ikasgaietan parte hartzen dutenak) Coimbrara joan ginen. Hiri horretako Sao Teotonio institutuarekin dugun elkar trukea dela eta urtero egiten dugun ekintza da.

Bertan, egunez egun, aktibitate desberdinak egin genituen: Coinbra hiriko leku interesgarrienak ikusi (unibertsitatea, Portugal dos Pequeninos,...), Aveiro hiria eta bertako museoa, eskolan bertako ikasleekin ekintza desberdinak,... oso esperientzia garrantzitsua gure ikasleentzat kontuan izanda talde bezala atzerrira egiten duten lehenengo irteera dela.

Hona hemen, irteera honi buruz ikasleek egin dituzten balorapen batzuk:

"Gure ustez oso bidai polita izan zen. Beste kulturak ikusteko eta lagunak egiteko balio izan zigun. Ondo aprobetxatu genuen denbora, toki asko bisitatuz. dena oso polita zen, berde asko zegoen eta giro ona izan genuen gure artean. Hoteleko zerbitzua oso ona zen eta denak oso jatorrak ziren. Bidaia luzea izan arren, oso segurua eta egokia izan zen, behar zenean gelditzuz. Unibertsitateak xelebreak ziren, baina oso politak. Oso eguraldi ona egin zigun. Bidaian asko disfrutatu genuen eta lagun asko egin genuen baina ez bakarrik Coimbrakoak, gure artean ere. OSO ONDO PASA GENUEN.

"Coimbran egon garen bitartean, esperientzia oso on bat bizi izan dugu. Coimbra oso leku polita da, bere erreka eta guzti. Jende berria topatu dugu, museoak ikusi eta herri ezberdinak ezagutu ditugu. Bertako jendearekin harreman ona eduki dugu. Gehien gustatu zaizkigun lekuak, hondartza eta bertako ikastola izan dira, eta noski Sao Teotonioko ikasleekin izan dugun harremana. Bidaia hau berriro ere errepikatuko genuke."



SB
SB
SUPER BAT
KONTUA
Haurrentzako aurrezki-kontu berria, etxeko txikiei ilusioak betetzen eta etorkizun dibertigarriago bat amesten laguntzeko. Haien erritmora eta malgutasun osoz.
Aurrezkiak puntu bihurtzen dira, Super Bat katalogoko* opariez gozatzeko. Orain, Super Bat Kontua irekitzearren, KUKUXUMUSU** karta sorta lortuko duzu.
Hiru, bi, bat… Hastera doa aurreztearen abentura!
Ezagutu ezazu hemen
SUPER BAT KATALOGOA
edo www.cajalaboral.com/super_bat helbidean
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
Ipar Kutxa
BADA BESTE MODU BAT
* Super Bat katalogoko gaiak puntuez trukatzeak zerga du, kapital higigarriko errendimendutzat hartzen baitira.
** Hilean 30€ko edo hortik gorako ohiko diru-sarreretarako.